

Euskal esku-langintza, Juan Garmendia Larrañaga

Zeruko Argia, 419. zk., 1971-03-14: 7.

"Itxaropena" irarrita argitaratu berria du "Añamendik" izen onekin eta bi liburuz osatua izan den lan eder au.

Ba dira gure artean Euskalerriko gizonak bere eskuekin zer eta nola eta noiztik etzertarako *gauzak* egiten ari diranen berri ematen saiatzeko eragiñ txalogarria sentitzen dutenak ere.

Oietako bat eta erne eta leiatsua bera. Juan Garmendia Larrañaga dugu.

Sarrera bertatik dio gure (erri osoko gizona baitugu au) Barandiaran-go Joxemielek, bi liburu eder oietan aitatzen diren esku-lanak gure ezikeren oiñarri direla, eta garaia iritxi dela geratzen dena jasotzeko; eskulangintzaren erioa inguruan baitabil; oietako esku-lan batzuk Paleolito aroaz (20 bat milla urte dela) egiten asiak ziren gure errian *zurezko ontziak*, edeztiaurrekoak dira; *eliz-argizaiak* eta *laia* eta *atxurra* ere; eta burdin-aroa ezker omen izan dugu gure aitonen esketan: *koldea*.

Adinez eta gauzezaz zahartu diren gure erriko esku maitagarri oiengana urbiltzeko maitasuna behar izan du lan au egitera ausartu den idazleak.

Gure erriko gogo-gogoan sartua ibili behar izan baita.

Ara emen, lehengo: Asteasun *sagardoa* nola egiten danaren berri. Nuarben, Gipuzko erritxo ontan, egiten dira oraindik *otarrak*, eta otar oiek eskuz-esku noiztik, nondik, ote datoz gaurtaiño? Arrolio edo petroleoa gaur nagusi, gaza eta atomika-indarra ere bai, baiña *Ikazkiñak* ere ba dira oraindik Alkizako "Garro"n, eta lehengoko ikatza kargaka saltzen zen bezala orain kiloka, iriña bezala, saltzen dela ikasiko du berri oiek jakin nahi dituanak. Naparroko Zubietan egiten dira oraindik *kaikuak* eta *oporrak*. Asteasuko Errege-kaleko "Juanbeltza" nean bizi, eta lan egiten du. Iraola-tar Eulokio Pelotari eta uztargilleak, eta ia bi metroko enbor batetik artizkeriz eta lanez *uztarri* ederrak egiten ditu oraindik. Ernioko altzoan dagoan Alkizako gizonak utzi diote aulki-egille eta ikazkin izateari aspaldi, baiña oraindik ba da or Iruretagoinaren illoba bat, Xabier, aspaldiko *eseri-alkiak* egiteko gaur arte eskuak luzatu zaizkion gizona. Lehenengo liburua bukatzeko oraintsu arte izan ditugun *itzaiei* dagokion lan ederraz berriak dakarz.

Bigarrenean: Abalzisketako Ziriako Zubeldia Barriola argizaigiñak animei (eta biziei ere bai, lehen behintzat) argi egingo zieten *kandelak* nolatan eta pixuan zenbaiterañokoak egiten zituan. Goierriko argizaia Beterrikoa baiño gorriagoa nola zen ("Erletxoak, erletxoak, egizute argizaia; nagusia il data, behar da eleizan argia"). Getariarrek ez dire Elcano ospatsuaren arrigarrietatik bakarrik bizi; batez ere (eta ez da au bakarrik aitatu nahi) *balearrantzan* ziren iaioak; ez da gaur balearrantzarik egiten (1878 gaurenean il zuten bat Zarautz. Orio eta Getariko arrantzaleen artean 48 oin luze, 32 lodiko, isatsaren zabalera 16 oin); gaur ez gera ain ausartak, jan edan!-jantzi!-eta-futbola-ikusteko ez baita ausarta izan behar... *Ontzigilleak*, itsas-ontzik egiten

dituztenak, alegia (aritzez eta eukalitoz) ba dira oraindik Euskalerrian (Donostian, Zumaian, Ondarrabin, Pasain, Motrikun, Orion Izaketa eta Getarin gutxienez), eta Getarikoetaz ari zaigu Garmendia oraingoan: Lazkanoren lantokia Ontzientzat *aingurak* behar dire: Ayako Gilisaskik Arrazubiako olan XVIIgarren mendetik lehengo aingura aundia egin zuanetik (aurretik Holandatik ekartzen ziren). Prantzira, Inglaterrara eta Portugalera ere biiltzen ziren; eta Iriartek, Urnitan, Zatarainek Lasarten, Labayenek Fagollagan, Goikoetxeak eta Ibarrolak eta Zatarainek Usurbillen, Legarrak eta Ameztokik eta Arteagak Billabonan, Egañak eta Rezabalek eta Barandiaranek eta Ameztokik Ernain, Gamonek Errenderin, Larrondosunok Tolosan eta Jauregik Donostian; Andoainen, nere sort-errian, ere egiten ziran aingurak, eta or dago oraindik Zumea kaleak duan Leizaran ibairantzeko karkaban Aingura kalea: aingura lantegi oiek lehengoak ziren, noski; baiña oraindik ba da Euskalerrian aingurak egiten dituzten bi: Egaña eta Ostolaza Getarin! Larraulen egiten dire oraindik gure gizonak prozezioetan eraman oi zituzten, eta oraindik tokitan eramaten dituzten, *atxoi* aundiak (kilo baiño gehiago pixatzen duten kandelak). *Erlojuak*, gehienak orain makinaz egiten dire, baiña ba dabiltz oraindik Zubillaga-tar Inazio erlojugilleak bere eskuz egindakoak (lehen egindakoa Oresako kanpantorrean dago, eta ordu eta ordu-erdiz gaiñera argi-ezkillak eta "Ave Maria" jotzen omen ditu; gero Albiztur, Segura, Ormaiztegi, Altzo, Ordizia, Eibar, Andoain, Billabona, Orduña, Aduna, Amezketa eta Donostiko Inazio Doneko kanpantorretako erlojuak ere egin zituan; or dade oraindik gaurko ordua jotzen! Lehengo *gurdiak* ere ez ziran, gaurkoak bezela, serien egiten, bakarka eta eskuz baizik; gurdigille bat bakarrik geratzen omen da Tolosan: Soldadu karrikan lantokia duan Zubillaga-tar Alejandro. Baserrietako *lan-tresnak* ere (*goldea, ola* edo *espardea, laia, alperra* edo *trinkoa, are* edo *arrea, marka, joiarra* edo *jorraia, besabea, sega, sega-potoa, eskuarea, kakoak, lera* edo *lega*), gure baserri-lanen beatzak, eskuak! izan dire urtetan; oiek ere norbaitek egiten ditu! Gurdia ere ez da oraingotxea; emen etorri dira txistuka, belar gozoak, garo iarrak, egur-enborrak, gora eta behera, behar ziraneko; behar bait ziren, eta behar baitira oraindik! Sagardotegiak ere ba doaz gure erritik, eta norbaitek agur esan behar, ez baitira iñolatan ere oroipen maitagarri bat gabe ahaztuta uztekoak.

Garmendia Larrañagak ain maitekor eta ereraski idatziz egin dituan bi liburu oiek bukatzeko jarri duan bezala: "Euskaldun batek, egiz euskaldun bada, iru gauza behar ditu: oñez ibilli behar du, sagardoa zalea behar du, eta pelotan jakin behar du".

Bejondaikiola guretzaz eta gure seme eta billobentzat Euskalerraren gogo diren esku-langintza oiek eskuz-esku, buruz-buru, pasata ain maitekor eta zehatz idatzita utzi dizkigulako.